

BERRIGARA


54. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1992, otsailak 28




**Karnabal, karnabal,
karnabal maite zaitu...**



**Gasa
Mekolaldera
bidean**



**Epaituak
13 gazte**



**Zezeaga
binakako
finalean**



ALDASORO


Prezio paregabeak, azken egunak!

Ikus itzazu barruan, denboraldi berrirako modelo eta koloreak.

BERGARA • OÑATI • LEGAZPI

BERROYA, E. A.

INPRENTA




OFFSET - TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2
Tfnoa: 76 00 01 BERGARA

Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!

 **xey**

Sukalde eta bainugelarako mobleria
Diselnuia eta goimallako kallitatea
5 urteko garantia

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

PHILIPS



Teknologia eta diselnua
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEekipoak
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzarriak eta gazteentzakoak
Alfonbrak. Ielho-oihal, narruzko sofak,
tapizak,...
apaingarriak

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51

OM 1224
FM 99'8

ENTZUN!

HERRIZ HERRI
Larunbatero
11.30 etan

HERRI Irratia



BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, eta Edurne Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Josune Iñarra, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifü eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Mozorro jantzien lehiaketa izango da aurtengo aratuzte jaietan ere. Jai Batzordeak puntuazioa emango duelarik, lehiaketa bakarka zein bikoteka jokatu da; bakarkako mozorro jantzi onenak 25.000 pta. jasoko ditu eta talde onenak berriz, 50.000 pta.ko saria eramango du. Larunbatean, 7etatik 8etara.

LARUNBATA 29

16.30etan.

• Saskibaloia:

- Bergara-Zarautz (junior mutilak), 16.00etan.

- Bergara-Aletico San Sebastian (gazte mutilak), 16.00etan.

- Bergara-Arrasate (gazte neskak), 16.00etan.

• Eskubaloia:

- Bergara-Zarautz (kade neskak), 19.00etan.

• Pelota partiduak:

- Irazola-Santi, Soroa III.-Salbidea/ Alustiza-Andueza VI. eta Urzainki-Guernetxea/Gabilondo-Alberdi III, Pelotalekuan

• Antzerkia:

- Kale antzerkia Hika taldearekin, Mujika ferreteriatik 6.30etan.

IGANDEA 1

• Kontzertua:

- Udal Musika Bandaren kontzertua Novedades-en, 12.30etan.

OSTIRALA 6

• Hitzaldia:

- Ekolojia eta emakumea, Udaletxeko Pleno Aretuan 19.00etan.

FARMAZIAK



29 Guallar/Español (Arrasaten gauzez)

- 1 Guallar
- 2 Estella
- 3 Mozos
- 4 Camacho
- 5 Puy
- 6 Guallar

ZINEA



Peligrosamente unidos

- OSTIRALA: 22.30.
- LARUNBATA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- IGANDEA: 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
- ASTELEHENA: 19.30.

Asunto de mujeres

- OSTEGUNA: 19.30.

OGIA



Bolintxo

EXLUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskoziur 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

Haratuzte?

Gure Berrigararen azken aleetako bat irakurri ondoren, horretaz ardura-tzen direnei eta irakurleei ohar bat egiteari bidezko derizot.

Euskaltzaindiak H-ren erabilerari buruz emandako arauetan bada gehiegitan huts egiten zaioneko bat. Horren arauera, H duten hitzei derizkienak idazterakoan eratorritako hitza non erabiltzen denari kontu egin beharra dago, Hrik ez darabilten euskalkietan baino erabiltzen ez direnak Hrik gabe idatziz.

Hori horrela, "herri" eta "herrizale" bai, ongi daude, baina Hego-Euskalerrian baino erabiltzen ez den "Ertzaina" horrela, Hrik gabe idatzi behar da. Orobat, "hesi"tik ipar-aldeko "hespil" eta hego-aldeko "esparru" ateratzen dira, biek esanahi bat eta bera dutenarren.

Beraz, horretarako egin den lehiaketa irabazi duen horma-iragarkiak dakarren "Haratuzte" gaizki dago, Hrik gabeko euskalkietan baino erabiltzen ez denez gero Hrik gabe behar bait du, nahiz "haragi" hitza erro izan. Euskeraren alorrean lan egiten duten askok erabiltzen dituzten zenbait hiztegitan horrela agertzen dela badakit; besterik ezean ere hori aski litzateke sasi-ira-

kasle eta okerbide gerta ditezkeen horietaz oso kontuz baino ez baliatzeko.

Toki-izenetan ere tokian esaten denari eutsi behar zaio eta, adibidez, Bergaran "Aritzizabal" baserriaren izena Hz idaztea gaizki legoke. Eta, era berean, bai Berrigarako merkataritza iragarkietan irakurri ditzakegun "Mahasterreka" (gezurra bide denarren "mahats"etik datorrela ontzat emanda ere) eta "Hazzkarruntz" ere.

Josu Oregi

Zuhaitz Egunari buruz

Eguzkiko kideok pentsatzen dugu aurreko urtean pausu polita eman zela, Zuhaitz Eguna egitearen orde Zuhaitz Astea antolatzearekin. Zergatik?. Aste osoa zuhaitzak landatzeari eskaintzea asko ez bada ere, kontzientziazio eta hezkuntza aldetik ondo dagoela uste dugulako.

Egun bateko landaketak, aldiz, nahiz eta udaletxerako eta bere langileentzako askoz ere errazagoa izan, ez ditu aipatutako bi helburu hauek betetzen.

Landaketak hitzaldi eta proiektzioe-

kin lagunduta joan behar dira eta aurretik gure udaletxeak Zuhaitz Astearen figura ez mantentzearekin okerrera jo duela uste dugu.

Datorren urteetan guzti hau kontutan izatea espero dugu eta aurreko urtean bezala astebete behintzat eskaintzea zuhaitz landaketari, haurrak piskanaka gai honek duen garrantziaz ohartzen joan daitezten.

Edota, zergatik ez urte osoa egin Zuhaitz Eguna?.

Bergarako Eguzki

Oker baten zuzenketa

Joan zen asteko Berrigararen Iñaki Mozosek "Torturaren Izua" izenburupean "Beraiek Diñoe" sailean idatzitako zutabearen erredakzioko oker bat zegoen. Azken parrafoan esaldi bat konturatu gabe "jan" egin genuen. Esaldi orijinala hau zen: "Izan ere, torturaren helburu nagusia herria izutzea da, eta izu hori, barra, elektrodo eta bainerez ez ezik, geroko "justiziaren" eta "informabideen" gezurrez lortzen baitute".

Gure barkamenak Iñaki Mozosi oker honegatik.



Tiiira ba!



Josu Okina

Lehiaketa

Pol-Pol Aragazki Taldeak eta Udal Kultura Batzordeak herri mailako diapositiba lehiaketa antolatu dute. Partaide bakoitzak 24x36ko sei diapositiba aurkeztu ditzake martxoaren 26a baino lehen Pol-Poleko tabernan edota Kultur Etxeko liburutegian. Antolatzaileek izendatutako epaimahaiaren erabakia apirilaren 4ean jakin eraziko da, 5 diapositiba bilduma sarituko direlarik.

Odol emaleak


Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak asteazkenean, martxoak 4, egingo den odol ematean parte hartu nahi duten herriko odol emaleei arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean Seminarioko lokaletik pasatzeko deitzen die.

13 gazteren aurkako epaiketa, sententziaren zain

Asteartean Deba Garaiko 13 gazteri 90eko ekainean Arrasaten izandako istilu publikoengandik Bergarako Epaitegian egiten ari zaien epaiketa sententziaren zain geratu zen. Fiskalak urtebeteko espetxeratzea eta Arrasateko Garibai kalean, barrikadaren eraginez, eta Ertzaintzaren furgonetan izandako kalteak ordaintzea eskatu zuen akusatutako 11 arrasatear, aretxabaletar bat eta bergarar gazte batentzat. Horrez gain, Ertzaintzak egun horretan furgoneta batetik grabatu zuen bideoan akusatuei aurpegiaritzen zaien guztia argi ikusten dela adierazi zuen.

Bergarar bat

Bergararraren defentsaz arduratu zen aboka-



tua ere bideoan oinarritu zen bere defenditua autobusaren zain zegoela azaltzeko eta, absoluzioa eskatzeaz gain, bergararra istiluen partaidetzat identifikatu zuen ertzainari legearen arabera dagokiona egin diezaiozela eskatu zuen. Gai nontzeko akusatuen abokatuak ere bere defen-

dituen absoluzioa eskatu zuen, testiguen istiluek ez zirela grabeak izan deklaratu zutela eta bideoa ere proba bezala ezin daitekeela erabili kontutan hartuz. Ikusmin handia sortarazi duen epaiketa honen sententzia martxoaren 10ean jakin araziko dela espero da.

Zuhaitz eguna Gorlan

Eguraldiak lagundu bazuen ere, espero baino jende gutxiago bildu zen joan den larunbatean Elusugainean ospatu zen aurtengo *Zuhaitz egunean*. Guztira, 40 bat gaztetxo izan ziren Gorlan zuhaitzak landatzeari ekin ziotenak. *Iñaki Txueka* Nekazaritza eta Naturgune Saileko diputatuak eta *Victoriano Gallastegi* alkateak ere parte hartu zuten jai honetan, Victorianok Udalak Gorla inguruan egin nahi duen parkearen berri eman ziolarik. Jaiari amaiera ona emateko, bildutako guztiei salda eta pintxoak banatu zitzaizkien Altzasun.



ANTIA

HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

GANBARA

Berezitasunak:


Pintxoak eta kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A

❑ **Herri Irratia**
Larunbatean, otsailak 29, *Loiolako Herri Irratiak* (99.8 FM) Bergarari buruzko irratsaio berezi bat emango du goizeko 11.15etatik 12.30etara. Bergarako zenbait gonbidatu solaskide izango direlarik, saio honen helburua kultura suspertzeko dauden instalakuntza, elkarte, mugimendu edota Udalaren plan-gintza ezagutaraztea litzateke. Hori dela eta, entzuleei ere aukera emango zaie 810857 telefonoaren bitartez beraien kezka edo eritziak azaltzeko.

❑ **Zikloturistak**
Igandean, martxoak 1, Bergarako zikloturistek denboraldiari hasiera ematen dion ohizko irteera egingo dute *Dorletara*, txirindularien patroiak urtean zehar istripurik ez izaten lagundu diezaien. Irteera goizeko 9.15etan izango da Plazatik.



Traspasorako bidean

Udaletxeko langileak hasi dira jadanik *Aroztegi Etxea* apaintzeko obretan apirila aldera eta 2 urte t'erdiz hor joango baitira Udaleko hainbat zerbitzu, Udalak hileko 600.000 pta.ko errenta ordaindu ondoren. Lehen Kutzako zuzendariaren bulegoa zena apiriletik aurrera herriko alkatearena izango da, alboan idazkari eta interbentorearena joango direlarik. Interbentzioaren bulegoak berriz, lehengo leihatiletan joango lirateke eta hauen parean idazkaritzakoak kokatu-

ko dira. Sarreraren esku-maldean, kajero automatikoa zegoen tokian, udaltzainak joango dira eta beheko pisuan hauen aldagelak, komunak, berogailua eta Udal artxi-boen kokalekua izango da.

Aroztegin egiten dharduten lanak datorren asterako amaituko badira ere, udal langileen asmoa lehenbizi euskaltegiko lokal berriko apaintzea da, euskaltegi zaharra bertara traspasatu eta lehen bait lehen Irizar Etxeko lanak egiten hasteko.

❑ **Argipena**
Aurreko alean *Lan beharren* artikuluko bi datu argitu nahi ditugu: batetik, Udalak enpresen beharren arabera, *Heziketa Okupazionalerako* programaren barne langabetuei zuzenduriko ikastaroak antolatuko baditu ere, ikastaro hauek 18 urtetik gorakoentzat lirateke, *Lanbide Hastapenaren* programa 16 eta 17 urteko langabetuei zuzenduta baitago. Bestetik, 727 langabetuen kopuruak biztanleko *aktiboaren* %12ari dagokio.

❑ **Omenaldia**
Jubilatuaren Egoitzak martxoaren 19an 1903-04 urteetan jaiotako bergarar guztiei egin behar dieten omenaldirako gonbidapenik jaso ez dutenei martxoaren 5a baino lehen Egoitzara edota 762140 telefono zenbakira jotzeko eskatzen die.

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARA

- Iturkintza
- Berogintza
- Gas

Tfnoa:
76 28 04

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien
karrozeria

Lelzeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA





Gas industrialia

Gas Euskadi enpresak T.T.T. enpresatik *Hijos de Arturo Narbaiza* enpresara doan tartean gas sarea zabaltzeko lurpeko kondukzio lanak burutzen dihardu. Lan hauek orain 20 bat egun hasi eta hilabete barru amaitzea espero da. Esan bezala, T.T.T.tik hasi, Albitxura igo eta handik Zubiberrira jeitsiko da erabilpen industrialeko gas sare hau. Ford Berria garajearen inguruan berriz, Neurri eta Erregulazio Estazio bat izango da, gas industrialia zein etxean erabiltzen dena

San Lorentzora bideratu ahal izateko. Narbaizara bideratu den gas sarea trenbide zaharretik, edateko uraren tuberiaren parean joango da. Sare honek, guztira, 2.491 metroko luzera izango du eta altzairuko tuberia berriz, 4 pulgadako lodierakoa izango da. Lan hauek 22 milioi pta.ko aurrekontua dute.

Gogoratu bestalde, Udalak etxeetarako gas sarea zabaltzeko baimezik ez ziola eman *Naturgasi* herri osorako plangintza aurkezten ez duen bitartean.

Txinpartak

✓ **Mizpirualde Egoitzan** ere karnabalak ospatuko dituzte; asteartean, 4 t'erdietan, merienda eta ondoren dantzaldia eta dantza lehiaketa izango dute.

✓ **Aratuzteko kartel lehiaketara** aurkeztutako kartelen erakusketa datorren asteartera arte ikusgai izango da Kultur Etxean.

✓ **Emakumearen egunerako** prestatutako egitarauaren barne, datorren asteazkenean, *Elkarteratzeari* buruzko mahai-ingurua izango da arratsaldeko 7etan Pleno Aretoan.

✓ **Bergara K.E.ko pelota sailak** Baracaldoren kontra jokatuko du Euskal Ligaren barne larunbatean, arratsaldeko 6etan Antzuolan.

✓ **Institutuak eta Lanbide Eskolako** ikasleek greba egin zuten asteartean Euskal Herri-*an* intsumisoen aurka egiten ari den lehen epaiketaren kontra protesta egiteko.

✓ **Euskararen astea** ospatuko da Elgetan martxoaren 6tik 14era bitartean. Besteak beste, bertso saioak, mahai inguruak, hitzaldiak, bideo emanaldiak edota pailasoen aktuzioak iragarri dira.

✓ **Antzuolako ihauterietan**, igande eguardian, Lantzeko ihauteriak, sorgin dantza, etab. izango dira Plazan, duela 65 urteko ohitura berreskuratuz, tximinoa, hartzia eta domadorearen agerpena ere izango delarik.

M.
OSINAGA


Etxeko
erreformak

Sukaldeko
altzariak

Espalola z/g
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57

ERROTA - GAIN

Aluminioak



• **Aluminiozko leihoak**
(Isolamendu termikoa)
eta PVC.

• **Galdaragintza**
orokorrean

Labegaraieta - Hazkarruntz Auzoa Tfnoa; 76 32 40
BERGARA

San Adrian

Elosuko feria kalera jeitsi (2)

1. 749 garrengo urtean udalak eraiki baki batzuek hartu zituen, Rokaberdeko Markesak, Alonso Moia alkateak, eta Etxeberriatar Domingo Iñazio eskribauak izenpetuak, eta Elosuko apaiza zan Ke-rejazutar Jazintori eskatzen zioten agindu horiek mezetan irakurtzeko, jende guztiak jakin zitzan. Hona hemen:

1.- Ez bada premiazko arazo batengatik, behintzat, ez dadila egon Bentan Elosuko eleiztarrik Agurmarien ondoan.

2.- Arrotzak ez ditela jokoan ibili Benta horretan iluntzeko bederatzia ondoren, beren ohetara erretiratu daitezela.

3.- Bentako zuzendaria arduratu beharko du aurreko bi aginduak betetzen.

4.- Bentatik behera, Plaentxi aldera dagoen bolatokia zeharo kendu beharra dago, eleiztar

askorentzako kaltegarria delako, eta bolatoki horretaz kexuak jaso direlako. Jai egunetan jokatu nahi dutenak joan ditezela Eleizaren ondoan dagoenera.

5.- Meza aurretik joko guztiak galeraziak gelditzen dira.

6.- Agurmarien ondoren ere galerazita daude, eta etxeratzeko ordua da.

7.- Edozein jolasetan laurden bat belloitik, edo gehienez bi laurdenetik gora jokatzeari, galerazita gelditzen da.

8.- Eta aurreko agindu denak bete daitezela, eta ezjakinarenean aitzakirik jarri ez dadin, esan daizkiela eleiztarrei meza garaietan.

9.- Elosuko Arana Bergarako karrikatik urruti bait dago, eta premiazko gertakizunetan agintariak leku baztertu horretara azkar hurbiltzea ezinezkoa izanik, horien ordezkari Andres Lizarralde elosuarra gel-



ditzen da, bai zuzentasuna ipintzeko, eta bai kaleko arduradunei emateko.

10.- Gizon eta emakumeen artean danboliñarekiko dantzak ez daitezela eskuak emanda egin, painueloak tartean ipini eta hartuta baizik, Iruñako Eleizbarrutiko Pro-bintzi honetan guztian egiten den bezala. Ezagunak bait dira eskutik hartutako dantzaldietan sortzen diren eragozpen bereziak eta Jaungoikoaren aurkako irainak. Agindu honek berdindin balio du euskeraz "Kantadantza" izeneko

dantzentzako.

11.- Azkeneko dantzaldian danbolina jotzaileak bukatu dezala dantza tartekako gelditurik gabe; tartekako gelditu horietan ematen bait dizkiete bultzadak elkarri gizon eta emakumeek eta beste mugitu txarrak egiten, eta horrela desegokitasunak eta eskandaloak ikusten dira.

Agindu horiek eskuan hartu eta era askotako elkarrizketa sortu liteke, zalantzarik gabe.

Imanol Sorondo

iRUDI

**Erlojudenda
Bitxitegia**

San Pedro 11
Tfnoa: 76 51 65

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako
instalazioak

76 00 00 BERGARA

OILAGORRA

Taberna


Barrenkale 21, BERGARA

MAKAILO

**Makailau ETXEA
kazuelak
gertatzen ditugu**

Ibargarai 15

PUB USOR



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75



Karnabalak, mundua hankaz gora jartzeko aitzakia

Karnabalak, Bergaran orain dela 15 bat urte berreskuratu genituen jaiak, urtetik-urtera gero eta arrakasta haundiagoz ospatzen dira. Hasieran ikastetxe, elkarte eta etxeetan, hau da toki itxietan, ospatzen hasi baziren, poliki-poliki kalea hartuaz joan dira. Aurten ere, mozorrotutako haur, zahar eta gaztez beteta agertuko zaizkigu herriko kaleak...

Bada azken urteetan erabilitako mozorro jantzien bizitasun eta orijinaltasunagatik nabarmendu den talde bat, emakume heldu xamarriz osatutako talde bat.



Bost urteko haurra baino sasoi hobean...



Ondo egindako aukeraketa, dudarik ez da: gerra baztertu eta Marta Sanchez goratu.

Aratuzte astearte guztietan mozorrotzen den bederatzikoa: Edurne Aldana, Maite Aranburu, Maria Victoria Arizmendi, Arantza Muruamendi, Maritere Uribesalgo, Milagros Arozena, Lide Oregi, Rosario Markiegi eta Juanita Gabilondok osatzen dutena hain zuzen ere.

"Piparradakoak"

"Izena be jarri dotsau taldiai: «Piparradakoak». Taldeko baten-baten zorionak ospatzeko Elusura, soziedadera, joan eta arraultza pare bana piparrekin bazkaltzen dou. Gero, asteartero biltzen ga kafia hartzera. Baina ez pentsau

golfa xamarrek garenik!; gu etxeakoandre oso serixuak gaita".

Karnabaletako astearte arratsaldeetan irtetzen dira kalera: "zapatu gabian disfrazen konkurtsua egoten dan modu-

an, martizenian ez dabe ezer antolatzen. Hori ipinizu Berrigarán", esan digute. Mozorrotutako kalejira pasatzen ikusten, espaloietan daudenen barre-algarak sortarazi ondoren, Mizpirualde Zaharren Egoitzara eta Monja Zaharretara bisitalditxo egitera joaten dira. Iluntzeko 8ak aldera, berriz, etxera senarrei afaltzen ematera: "gizonak, lotsaz, ez die irten be eitten".

Ijito, Realeko futbolari, marinel, troglodita, haur e.a.ez mozorrotuta irten dira orain arte. Jantziak eurak egiten dituzte eta aurten ere horretan dihardute. Asteartean zertaz mozorrotuko diren, ostera, ez digute kontatu. Sorpresa...



Toshack etorkizunerako taldea osatzen ari dela? Realeko begiraleek Bergararik bueltatxo bat eman beharko lukete.



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



GISASOLA BURDINDEGIA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8,

Tfnoa: 76 27 70



BERGARA



92ko Aratuzteetako kartel lehiaketa

Dani Laskurain (irabazlea)

Lehiaketara aurkeztutako 31 kartelen artean Dani Laskurainena izan genuen onena. Daniri bere aita Jose Antonio Laskurain pintoreak piztu zion txikitan pintatzeko zaletasuna. 25 urte ditu, Bilboko Arte Ederretako fakultatean lizentziatua, sari ugari irabazi ditu azken urteetan; 1.990ean esaterako, Bizkaiko Artea 3. saria irabazi zuen grabatu sailean. Gaur egun Bilbon bizi da.



Dorleta Mendibil



Eider Iturraspe - Ainara Alberdi - Naiara Lopez



Ion Andoni Urisabel




A. Alberdi - E. Larrañaga - M. Arzamendi - S. Andueza



Xabier de Zerio



Andres Díez



Carlos Galarraga




Antonio Arrillaga

URRATS
 **Kafetegia**
 Ibigaral Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

ELADIO
OINETAKOAK
 Oinetako konponketa
 MATXIATEGI 2, Tfnoa: 76 54 60 **BERGARA**





"Taun-Taun Show", txontxongilo talde bergararraren azken lana

Igandean irekiko ditu ateak Zabalotegiko dorrepeko antzoki berrituak. Bergarako abesbatzek euren entsaiuetarako daukaten aretoa egokitu, eta antzerki emanaldietarako erabiliko da hemendik aurrera.

Helduentzako txontxongiloak lantzen dituen Taun-Taun talde bergararraren "Taun-Taun Show" azken lanaren aurre-estrenuaren testigu izango da. Estrenu ofiziala, Maiatzaren 2rako iragarrita dago Novedades Aretoan.

"20ko hamarkadan girotuta, itxi behar duten kabaret baten azken gaua kontatzen dugu lan honetan. 14 pertsonaia ezberdinekin, skech-ak tartekatuz, gau horretan gertatzen direnak kontatzen ditugu", azaldu digute Taun-Taunekoek.

Taldea orain dela lau bat urte sortu zuten eta gaur egun lau lagun ari dira lanean: Nartxi Azkargorta, Karmele Pérez, Iñaki Mata eta Pili García. Joan

den udatik buru-belarri jardun dute muntaia berri honetan eta eurokin batera, Carlos Odriozola eta Itxaso Azkarrate zuzendaritza lanetan; Xabier Labaien musika konposatzen eta Riki Azkargorta muntaia iragartzen duen kartela egiten aritu dira. Gasteizeko *Ñake* antzerki taldekoek, bestalde, gidoia lantzen lagundu diete.

"Izuikarak haripean", "Lam eta lorea", "Bi Kate" eta igandean ikusteko aukera izango dugun "Taun-Taun Show" dira Taun-Taunek orain arte landu dituen lau obrak: "azken lan honetan umoreari inportantzia gehiago eman diogu. Teknika aldetik ere berrikuntzak egon dira: orain arte harietatik zintzilikaturiko panpinak erabili ditugu. Orain, berriz, teleñekoetan erabiltzen den Mop-tet teknika, barilen teknika..., landu ditugu".

igandeko ikuskizunerako sarrerak 400 eta 200 pzta.tat salduko dira.

Karnabaletako egitaraua

LARUNBATA 29


- Arratsaldeko 18.30etan: "Eta ohea egin gabe" kale antzerkia HIKA taldearekin.
- Arratsaldeko 19.00etatik 20.00etara: **Mozorro jantzien lehiaketa** San Martin plazan.
- Gaueko 23.00etan: **Joselu Anaiak** taldearekin dantzaldia San Martin plazan.
- Goizaldeko ordu 1ean: **Mozorro jantzien lehiaketako sari banaketa.**


IGANDEA 1

- Eguerdiko 12.30etan: **Udal Musika Bandaren** kontzertua Novedadesen.
- Arratsaldeko 19.00etan: **TAUN-TAUN** taldearen "Taun Taun Show" txontxongilo antzezlan Zabalotegiko antzokian.

ASTEARTEA 3

- Arratsaldeko 15.30etan: **mozorrotutako hauren kalejira** herriko kaleetan zehar.
- Arratsaldeko 17.00etan: *Bixkor, Moxkor eta Enpresari Jauna* pailasoen emanaldia.
- Arratsaldeko 15.30etatik 17.30etara eta 19.00etatik 21.00etara **Basoko txaranga** herriko kaleetan zehar.
- Gaueko 22.30etan: *Orquesta Nervion* taldeak alaituta **dantzaldia.**
- Gauerdiko 24.00etan: **Sardinaren entlerua.**

 **IZADI**
Santiveri PILI GISASOLA
 Osasun eta Dietetikan
 espezializatutako zentrua
 Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

 **zumelaga**
JATETXEA
 San Antonio 5 BERGARA
 Tfnoa: 76 20 21

Tximak
Ileapaindegia
 Fralkozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS
oto sistema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Zuhaizti

AFARIAK:

Asteburuetan.
Aste barruan
enkarguz.

**Karnabalak ondo
pasau!!**

Espaloia 6, Tfnoa: 76 59 22

Zertaz mozorrotuko zara karnabaletan?




Elsa Manso
24 urte, langabetua

Larunbatean ez naiz mozorrotuko baina asteartean, seguruen, *Los Manolos* moduan disfrazatuko gara kuadrilakoak.



Aiert Lizarralde
18 urte, ikaslea

Oraindik erabaki barik daukat baina indio edota japoniar mozorrotuko naiz seguruen.



Txus Iglesias
22 urte, tabernaria

Larunbatean moro jantziko gara eta asteartean seguruenik kamarera mozorrotuko naiz.



Maria Dolores Moñux
55 urte, etxekoandrea

Karnabalak ez ditut gustoko. Mozorrotzeko girofuta egon behar duzu.

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

iKASLE

Liburudenda - Fotokopiak

Dr. Fleming. Tfnoa: 76 28 05 BERGARA



Kirolariak leben orrietan

Bost urteko ume batek 25 kiloko harria jasotzen duela... papera aurrean eta ezin asmatu zertaz idatzi?... Hogeitabost lerro... Agian, Bergarako kirolariak,... noski. Egunkari, irrati eta telebistetako albiste garrantzitsuenen artera hurbildu dira. Merezki dute. Zezeaga eta Igartua. Ostiralean bi bitara txapelketako finala jokatu duen Jose Mari Zezeaga eta larunbatean Udalak omenduko duen Iñigo Igartua. Biak ere apalak baina kirolari haundiak.

Udalak kartelak eta pintadak baimenik gabe jartzea debekatu dituen honetan, Uberan Jose Mariri "Aupa Zezeaga" galanta jarri diote, eta Bergaratik autobusa ere antolatu da finalerako. Indartsu dago Uberako mutila eta nerbioak etxean utzi ezker txapelduna izango da, pilotari nerbioarekin emanaz. Apostu seguruenak?... Bergararra ala Vergara ziur irabazle. Zerbait gehiago... Bat, bi,... hogeitabost lerro, beste bost eta kitto.

Kirolaren munduan gabiltzanez, nik ere jokatzeko den noizean behin kirol batean, xakean hain zuzen ere. Bergaran zaleturik badagoela ezin ukatu, Ollagorran antolatutako txapelketan 25 lagunek parte hartzen dutenean. Kitto.

Ion Altuna



Zabalotegiko dorrepeko aretoa

Aurreko urteko antzerki emanaldietara jende gutxi azaltzen zela ikusi ondoren, Udaleko Kultura Batzordeak bere balorazioa egin du. Bertan jende falta honen arrazoi bat bezala, nahiz eta bakarria ez izan, antzokiarena izan da.

Zabalotegiko dorrepeko areto honek bere abantailak baditu. Lehen, hurbiltasunarena (Mariaren Lagundiko aretoan bezala hainbeste eskailera igo behar eza...), atsegintasunarena eta azkenik, abegikortasunarena.

Guzti hau aztertu ondoren, Kultura Batzordeak toki edo lokal erabilgarriagoa topatzea erabaki du.

Horretarako Udalak egokitze obra batzuk egin ditu Zabalotegiko aretoan: eskenatokiari 2 metro gehiago eman dizkio, paretak margotu ditu, komunak berriztu, e.a.

Borondate guzti hau ikusi ondoren, jendearen erantzuna ona izan dadila espero dut. Lehen urratsa eman da dagoeneko, baina orain herritarren erantzuna ezinbestekoa da, antzerkigintzarenganako zaletasuna eta giroa pizteko. Institutoan antzerki taldea osatzeko ahalegitan gabiltza, orain dela urte batzuk Xiputz sortu genuen moduan. Talde hartatik irten ziren zenbait aktore gaur egun Euskal Herriko antzerki talde ospetsuenetan lanean ari dira.

Bergaran antzerkiarenganako zaletasuna aspalditik izan da ezaguna. Ea denon artean zaletasun hori berpizten dugun. Horrela bada, altza teloa!

Pedro Mujika



MINER Ardo onak, ardoa jakina

Billegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

LETE TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE
BERGARA Tfnoa: 76 12 24
IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19

A
R
R
A
N
O



Taberna

Karnabalak ondo pasa!

Kruz Gallastegi BERGARA

PEÑALBA Karnabaletako gaiak

Irala 1, Tfnoa: 76 10 49
BERGARA

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larranaiga

San Pedro, 9 - Teléfono: 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

ANDIZIV

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

Azulejo erakusketa • Onduline
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

□ Omenalditan

Ziklo-kross denboraldia amaitu bada ere, Iñigo Igartua albiste dugu berriz ere egunotan. Batetik, joan den larunbatean ETB-2ko *Estrellas en juego* lehiaketan gonbidatu modura irabazi zuen 300.000 pta.ko saria, Bergarako **San Andres Ajedrez Elkarteari** eman zion. Bestetik, igandean Bergarako futbol partiduan ohorezko satea egin zuen eta, horrez gain, astebukaera honetan beste bi omenaldi jasoko ditu Iñigok; ostiralean, omenaldi-afaria eskeiniko dio Oxirondo Elkarteari eta larunbat eguardian, berriz, Udalaren omenaldia jasoko du.



Igartuak plaka oroigarri bat jaso zuen igandean Alex Garitanoren eskutik.

**N
A
B
O**

**1
9
9
2**

□ Egutegi eusko-amerikanoa

Pedro Luis Ormazabal argazkilaria bergararrak Estatu Batuetan argitaratutako *North American Basque Organizations* egutegia bidali digu Boisetik (Idaho). Bertan, jaiegunak baino gehiago, Euskal herriko hainbat tokitan Pedro Luisek ateratako argazki bikainak nabarmentzen dira.

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

Garnish

Bitxitegia

% 20ko deskontua
%10rra karnabaletako galetan

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57



❑ Italiarrekin hartu-emana

Orain astebete Ortonovon, Carrera (Italia) ondoko herri baten izan genituen **Abdon Juaristi** eta **Luis Laskurain** bergarar margolariak eta **Luis Abajo** Kultura Batzordeko zinegotzia ordezkatu zuen **Andoni Larrañaga**. Bidaia honen helburua hango margolariekin egin nahi duten hartu-emana zehaztea zen; printzipioz, bergararrek uztaila aldera erakutsiko lituzkete beren margoak han eta, italiarrak berriz, hemen izango lirateke datorren urteko urtarrilean. *Mamma mia!!*


❑ Bisita

Joan den astean gure irakurlego gaztetxoena-ren bisita izan genuen **BERRIGARRA**ko erredakzioan. **Eva Ortega** eta **Maite Arnaez**en irakasleen laguntzaz, **San Martin Agirreko** 3. mailako ikasle talde batek erre-bista nola eta non egiten den jakin nahi izan zuen Kultur Etxera egindako bisitaldian. Horra hor *inbasioaren* froga...




Zertan dihardute ba?

JOSE MARI MARZANA



Jose Mari Marzana "Arientza", Angiozarren bizi den 52 urteko idi-probalari elorriotarrak Eusko Jaurlaritzako *Superprestijio* saria irabazi berri du Urdulizen, denboraldiko idi-probalari onenenak gaindituz.

SASKIBALOI SAILA



Liga txapelketa amaitzeko oraindik bi ihardunaldi falta direnean, Bergara K.E.ko senior gizonetzkoen saskibaloit taldeak 3. mailarako igoera lortu zuen joan den astebukaeran. **ZORIONAK!!**

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

JUAN MARI IRIZAR

Hagin klinika, aho sendagilea.

**Helbide berria hau da:
Boni Laskurain 4, behea. Tfnoa 76 56 57**

Umore giroan

Txomin Amasorainen Ixkirimiriak amaitu eta Pedro Zelaiaren kontuekin barre egiteko aukera izango dugu hemendik aurrera. Bata zeln bestearekin, beti *umore giroan...*

Marzelo Santa Agedan

Azken batian, Marzelo nerbixuetatik izurratu zan eta, agiña atartzeko aitxixiakiakin eruan zeben Santa Agedara. Andik egun batzutara, juan dira bera bisitxatze-
ra lagunak. Ez jakin zelan asi konbersasifua, -sala aundi aretan- eta, lagun batek esan zetsan:

- Ta Marzelo, ondo a-bil?

Eta Marzelok, salan zeguan erloju aundi bati begiratuaz:

- Emen, ondo, axe ba-karrik dabik.



Zidarra urtutzen

Zapatu baten, etorri da ixa urtetzeko ordua eta kintzenarik ez zan agertzen. Orduan artu zeban Marzelok txorizo punta bat eta sartu zeban sutako laban.

- Zer eitxen dok orrekin Marzelo?

- Zidarra urtutzen, ez jakot bestiori ta...

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Bergararren pertsona izenak (2)

XVIII menderaen hasieran, izen erabiliena izan zen Juan (ia jendearen herena), Josek harrapatu zuen eta bigarren erdian pasatu ere bai; Juan gainbehera joan zen eta oso gutxi erabiltzen zen XIXan eta ia beti izen konposatuekin. 1.730-40 hamarkadan izen bikoitzak -edo hirukoitzak- agertzen hasten dira, maiorazko eta aberatsen artean batipat, lautik bat baino gehiago direrarik mendearen bigarren erdikadan.

Izen berri asko azaltzen dira ordurarte ia ezezagunak zirenak: Facundo, Angel, Alejandro..., eta hau umeari eguneko santuaren izena ipintzeko moda nagusitu zelako. Moda hau indartu egien zen XIXan eta ikusten dugu jada ez dagoela nagusi den izenik, Jose ez bada, populazioaren % 15arekin.

Hau izen ofizialei dago-kionez, baina sarri izendatzeko modu euskaldunak erabiltzen ziren: Mattin, Peru, Txomin, Txope... Izen euskaldun-euskaldun gutxi jartzen zen, Ignacioz aparte, oso erabilia XVIIetik XIXera arte. Euskal izen zaharrak (Ochoa, Garzia, Iñigo) inoiz aurki daitezke XVI mendera arte, baina azkenak bakarrik irauten du. Xabier edo Gabon (Maria Gabon emakumeak) ere aurkitzen dira noiz edo noiz.

Emakumeen artean Maria izan da nagusi. Katalina ere oso ipinia zen eta baita Marina eta Gracia ere. XVIItik aurrera, gizonetan bezala, Josefa asko ugartzen da eta baita, nahiz eta gutxiago, Antonia eta Ignacia ere.

Juantxo Madariaga

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna


Eguneroko janariak -
Txitxizotzak-Kazolatxoak-
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

Mugica

Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 10 34



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Jose Mari Zezeaga Infernukua tabernan bezain lasai ez da egongo Gasteizeko Ogetan.

J.M. Zezeagaren lehen binakako finala

✓ Asko dira ostiralean Ogetan izango diren bergararrak. Gehienak kotxe partikularretan joango badira ere, Infernukua tabernatik autobusa irtengo da.

✓ Zaletuen artean pankarta prestatu dutenak ere badira. Uberarrek, bestalde, "Aupa Zezeaga" irakur daitekeen pankarta haundi bat jarrii dute Uberan bertan.

✓ Apostuak, gutxigatik bada ere, bergararraren aldekoak dira: Infernukua tabernako kinielan, esaterako, 65 apostutatik, 40 dira Zezeaga-Unanuen aldekoak. Gehienek 22-17 jarri dute eta bakar batek, 7-22 eta 22-7.

✓ Jesus Mari Zezeaga eskuz binakako Txapelketako finalera

heltzen den lehen bergararra dugu. Egia esan goreneko mailetan aritu diren pelotari bergararrak ez dira ugariak. 50ko hamarkadan Gallastegi II.a aurre-aurrean ibili zen. Unamuno eta Madinabeitia lehen mailako profesioaletan ibili dira, Agustin Iñarra..., eta gaur egun gogor ari den Jokin Etxaniz.

✓ Ogetan izango diren bergararrak asko badira ere, gehienek ETBtik jarraituko dugu. Etxeetan, tabernatan, eta batez ere elkartee-tan, telebistari begirik kendu gabe egongo gara. Oxirondo elkarteetan, bapo afaldu ondoren, uberarraren jokoa gertu-gertutik jarraituko dute eta tele-ikusleen artean, Don Pedro zaletu amorratua. Gasteizera joan ezinean, lagun artean disfrutatzea onena...

Pronostikoak gipuzkoarren alde

Don Pedro

Oso partidu gogorra izango da eta material aukeraketan egongo da gakoa. Dena dela nik argi daukat: naparrek ez dute 16 baino gehiago egingo.

J.R. Madinabeitia

Zaila, Oso zaila izango du Zezeagak Vergarilla eta Arretxe bikain jokatzen ari dira eta. Jose Marik ondo jokatu ezkerro zerbait egin dezakete baina bestela galdu egingo dute. Nere pronostikoa: 22-15.

Jon Altuna (Euskadi Irratia)

22 eta 18 irabaziko dute Zezeaga eta Unanuek.

Javi (Infernokua)

22 eta 16 Zezeaga garaile.

Agustin Iñarra

Zaila izango du Jose Marik eta oso ondo jokatu beharko dute irabazteko. Gainera, eskua ez dauka ondoegi..., dena den nire apustua gipuzkoarren alde da: 22 eta 15 irabaziko dute.

Jokin Etxaniz

Zezeagak nola jokatu, partidua ezberdina izan daiteke. Urduri jartzen bada akabo, baina azkenaldian modu on jokatu ezkerro, 22-17 irabaziko dute.

Reyes Azkoitia

22 eta 12 nagusituko dira Vergara-Arretxe. Zezeagak ezkerreko eskua ez omen dauka ondo eta gauzak horrela, Vergarak Unanue mareatu dezake. Unanuek ondo jokatzeke Zezeagaren laguntza behar du.

PRiMi

• Mariskoak, arrain fresko eta izotzak .

• Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91



FOTOKOPIAK - ENKUADERNAZIOAK

LIBURUDENDA

KARNABALETARAKO GAIK

San Lorentzo 23, Tfnoa: 76 58 28



Gazte kuadrila karnabaletan

Gazte kuadrila dakargu oraingoan "Erretratu Zaharrera". Gorputz eta iztar lirain eta bihotz gazteak dituen jendez osatutako taldea. Goizean goiz irrintzi egin eta "Gora juergia" esanda irten dira etxetik. Taldea konpletoa da paisa, pailazo eta guzti. Eta, juerga finantziatzeko jeke arabiarrak. Urtero bezala, bazkari ederra egin dute "Agirrebeña"-n.

Aurten ere hor ikusiko dituzue Altos Hornos aldean. Animo, Karnabalak urtean behin izaten dira eta.

Eskerretik eskumara: Beatriz Biziola, Pilar Larrañaga, Anita Suinaga, M. Karmen Leturia, M. Angeles Larrañaga eta Rosario Garitano eutsi luzaroan umore horri eta bergarar guztioi ondo pasa Karnabalak.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Pili Azkarate*

JULIA

Frutadenda

Matxiategi 4 Behea BERGARA

Gracian

Usaindegia • Merzeri

Bidekurutzeta 6, Tfnoa: 76 10 25 BERGARA

ETXEBIZITZA

Pisua alokairuan hartu nahi nuke. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. ☎ 76 42 52 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsaldez).

Antzuolan pisua erosi-ko nuke. ☎ 76 62 36.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Etxebizitza salgai San Lorentzo 25ean. ☎ 76 31 35.

Pisu txiki edo buhardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 32 70.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

SALDU-EROSI

Musika jotzeko baterla salgai. Egoera onean. Prezioa eztabaida daiteke. ☎ 76 53 55.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta. ☎ 76 21 35.

Fondoko hiru pare eski salgai, egoera onean eta merke. Bata 6-8 urteko batentzat, bestea 8-10ekoentzat eta bestea nagusientzat. ☎ 76 32 69.

Amnstrad konsola salgai ☎ 76 13 14.

3 pertsonarentzako iglu kanping-denda berria salgai. ☎ 76 34 95.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitora, 3 pulgadako disketara, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Trabeslako eskialk salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Kanping denda, karro eta guzti, salgai. ☎ 76 58 93 (Miren).

Mendiko Kamet bota pare bat (44a) salgai. Oso merke. ☎ 76 24 64. Joxemi.

Yamaha SR-250-E, SS-AH matrikula, salgai. ☎ 76 52 30.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Artzal txakurra erregalaten dut. ☎ 76 58 93.

Collie txakur-kumak salgai. ☎ 76 64 83.

LANA

Edozeltn motatako lanak egingo nituzke. ☎ 76 58 93.

50 urtetik gorako emakumea behar da andre edadetu bati laguntzeko. ☎ 76 51 62.

Arratsaldez etxeko lanak egin edota umeak zainduko nituzke. ☎ 76 54 82.

Neska euskaldun batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 31 28.

Emakumezko euskaldun batek etxeetan interina lan egingo luke. ☎ 76 21 33.

Baserriko edota baserritik datorren gizon gaztea behar dut nekazaritzako produktuak saltzeko. ☎ 76 12 21.

Gizonak edo emakumeak behar ditut zentru komertzial baten lan egiteko. ☎ 76 12 21.

Hildakoak

Isidro Alberdi Dorronsoro
otsailaren 22an, 84 urte

Jaiotakoak

Inti Fraile Aranburu
urtarrilaren 22an
Erika Fraile Aranburu
otsailaren 18an
Maddalen Odriozola Rodríguez
otsailaren 25ean

AUTOPULLMANS ARABA Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

ELKAR

*Fotokopiak, enkuadernazioak,
jendearentzako faxa, plastifikazioa
eta planoen kopiak. Eta orain ...*

fotokopiak koloretan!!

Harruriaga 1, Behea. Tfnoa eta faxa: 76 58 16 BERGARA

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



MANGADO
VOCHOA

ZERAMIKA ETA SANITATE GAIK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorentzo Poligono Industrialia, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA